



PRENTSA OHARRA

“HIRUGARREN SEKTORRE SOZIALAREN HELBURUA PERTSONA ERABILTZAILEEK BEREN BIZITZAREN KONTROLA IZATEA DA”

- ***Sareen Sareak Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialeko Legearen hirugarren urteurrena ospatu du. Ekimen horretara hirugarren sektorre sozialerako erakundeak, administrazio publikoak eta erabiltzaileak bertaratu dira***
- ***Eguneko gai nagusia erabiltzaileen parte-hartzea izan da; izan ere, “hirugarren sektorre sozialerako erakundearen helburua beren bizitzaren kontrola izatea eta gustura sentitzea da”, adierazi du Pablo González presidenteak***

Gasteiz, 2019ko maiatza. Gaur goizean ospatu da Sareen Sarea erakundeak, arlo horretako sareak eta erakundeak biltzen dituen sareak, antolatutako Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialaren Eguna. Ekimenak 2016ko maiatzaren 12ko 6/2016 Legea indarrean sartu izana oroitzen du. Lege horrek Euskadiko hirugarren sektorre sozialean lehena eta oraina markatu zuen. “Zoragarria da partaide izatea” leloarekin, kanpainak etorkizuna izatearen sentsazioa balioesten du, independentea izatearena, etxean bezala sentitzearena eta hilaren amaierara iristearena; hori osatzen duten sareen eta erakundearen ekarpenaren ondorio da guztia.

Hirugarren urteurren horretan, beste batzuen artean, pertsona hauek hartu dute parte: Iñigo Urkullu, Lehendakaria, Bakartxo Tejería, Eusko Legebiltzarreko presidentea, Gorka Urtaran, Gasteizko alkatea, Beatriz Artolazabal, Enplegua eta Gizarte Politiketako Sailburua, Pablo González, Sareen Sareko presidentea eta Sareen Sareko zuzendaritza-batzordea.

Erabiltzaileen parte-hartzea

Zalantzarik gabe, Euskadiko hirugarren sektorre soziala osatzen duten erakundeetako erabiltzaileak izan dira eguneko protagonistak (sektorre hori, neurri handi batean, norbere buruari laguntzeko erakundeek osatzen dute). Ondorioz, Pablo González Sareen Sareko presidentea adierazi duen moduan, “kontua ez da erabiltzaileek erakunde horietan parte hartzea, horiek sortzen lagundu zutela baizik Ondorioz, guztiaren hasiera parte-hartzea dela eta haren DNA txertatuta dagoela esan dezakegu”.

Erakunde horiek erabiltzaileei laguntza eman nahi die eta hori ezinezkoa litzateke jasoko duen pertsona kontuan hartu gabe. Hala eta guztiz ere, ez da beti horrela; “izan ere, batzuetan, haien izenean erabakitze edo makropolitiketik hitz egiteko ohitura egoten da, baina horiek ez dira arlo operatibora iristen”, adierazi du Gonzálezek. Hori dela eta, Euskadiko hirugarren sektorre sozialerako erakundeetatik, arlo horretan hobetzen saiatzen ari dira, eta erabiltzaileei ikusgarritasun eta parte-hartze handiagoa ematen.

Jardunbide egokiak sortzeko azterketa

Horren adibide da Bizkaiko Hirugarren Sektorreko Behatokia Sareen Sarearen elkarlanarekin aurrera eramaten ari den azterketa, betiere, erakundeetatik esku-hartzeko sozialerako



prozesuetan pertsona erabiltzaileen parte-hartzearen zaintza deskribatu eta aztertzeko. Sektorre publikoarekin batera, pertsona hartzaileen partaidetzako jardunbide egokiak sendotzea eta sortzea da helburua. Honi buruz izan da gaur goizeko ekitaldiko solasaldia. Bertan, erabiltzaileek eta adituek hartu dute parte beren esperientziak kontatuz eta aztertuz.

Honen adibide bada Carlos Sáez, Arabako Onceko kidea. Gaixotasun bategatik gutxinaka ikusmena galtzen joan zen, guztiz itsu geratu arte. Once-ri esker, "orientazioa jaso nuen. Hau gertatzean higikortasuna galtzen duzu, beldurra sentitzen duzu, dena zure barruan erortzen dela sentitzen duzu. Eskaintzen dizkizun zerbitzuez gain, entitateak berresten zaituen maila emozionalerako laguntza handia ematen du. Non joan behar duzun jakitea, laguntza profesionala bizi duin bat lortu ahal izateko", onartzen du.

Baita ere, partehartzea ezinbestekoa dela dio, " ez digute esan behar zer egin behar dugun, baizik eta azaldu ze aukera ditugun, eta horren arabera guk hartuko dugu erabakia, gure bizitza, guk aukeratu ahal izateko".

Izan ere, hirugarren sektorre sozialeko erakundeek eskaintzen dituzten zerbitzuek erabiltzaileen bizitzan eragiten dute "beren beharren erantzunak bilatuz, erdigunean kokatuz, eta batez ere, bizitza osatua eta asebetea izan dezaten lagunduz. Beste hitz batzuetan, beren bizitzaren kontrola izaten eta izan nahi duten bizitza izan dezaten", adierazi du presidenteak. Horrekin lotuta Gonzálezek adierazi duenez, "eraikitzen ari dira, pausoak ematen ari dira, bai administrazio publikoetatik, bai gizartetik, baina oraindik asko dago egiteko. Lankidetzako borondatek hedapen eragilerak igarotzera falta da, eta horretan dihardugu Sareen Sarean eta hura osatzen duten erakunde guztietan".

Legearren hirugarren urteurrena

2014an Sareen Sarea sortu zenetik, gauza asko aldatu dira. Ikuspegi orokorretik, "sarearen existentziak hirugarren sektorre sozialaren garrantziaren gainean jabetzea eragiten du", adierazi du Gonzálezek. Erakundearen lehen etapak sorkuntza-lan handia izan zuen eta hirugarren sektorre soziala juridikoki eta legalki aitortuko zuen legea lortzeko bultzada izan zen. Legea onartu ostean, Sareen Sareak Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialaren Estrategiaren sorreran parte hartu zuen, eta egun, hortik etorritako ekintzak gauzatzeko eta administrazio publikoekin izandako elkarlanari esker pausoak ematen jarraitzeko ari gara lanean.

Orain arte egindako lanarekin gustura, gaur, maiatzak 12, Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialaren Eguna ospatzen dugu, "egunerokoan lan egiten den jendearekin biltzeko ondo datorren urteurrena, eta batez ere, kontzientzia eragiten laguntzen duena". Lortzen ari gara zera da, urtero gero eta jende gehiagok parte hartzea; izan ere, "aurten 250 pertsonaren parte-hartzea izan dugu, eta joan den urtean 200 lagun izan ziren. Maiatzaren 12a euskal sektorre soziala osatzen dugun hiru eragile nagusien arteko topagune bihurtu da: erakundeak, administrazio publikoak eta erabiltzaileak".

SAREEN SARIA

Aurten, Sareen Saria Manuel Merinori eman diote Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialean, Caritasen, Laresen eta Aspaldikon izan duen ibilbidearengatik. Saria honako hauekin lotutako ibilbidea eta konpromisoa direla eta azpimarragarriak diren pertsonen ematen zaie:



gizarte kohesionatua, inklusiboa, solidarioa eta parte-hartzea lehenesten duena, pertsona guztien eskubideak berdin errespetatuko dituena, egoera zailean daudenei arreta berezia eskainiz.

- pertsonak parte hartzea, zuzenean edo zeharka, eta bereziki EHSSren ekintzen onuradunek bizitza sozialean.
- Hirugarren Sektorre Sozial elkartu, sendo eta aitortua egituratzea.
- EHSS erreferentziatzeko gizarte-eragile gisa proiektatzea.

Manuel Merinok hirugarren sektorre sozialean 1989an hasi zuen ibilbidea Bilboko Elizbarrutiko Caritaseko zuzendari gisa. Bertan egin zituen 9 urte eta Euskadiko Gizarte Zerbitzuen garapenean lagundu zuen, Euskadiko Caritasen jaiotza sustatuz eta bertako lehen presidente izan zen. 90eko hamarkadan, Caritasetik adineko pertsoneri zerbitzua eskaintzeko aukera planteatu zuen. Horrela, Caritasek Aspaldiko Fundazioa sortu zuen eta bertako zuzendari nagusia izan zen. Martxan jarri zenetik, gizarte-zerbitzuen hazkundera bultzatzen jarraitu du. Lares Euskadiko, irabazi asmorik gabeko adineko pertsoneri arreta eskaintzeko egoitzen eta zentroen sareko, presidentea izan da. Gaur egun, ASPALDIKO FUNDAZIOAREN Patronatuko Batzordeko kidea da.

EUSKADIKO HIRUGARREN SEKTORRE SOZIALARI BURUZ

Hirugarren Sektorre Soziala herritarren ekimeneko erakundeek, irabazi-asmorik gabek, osatzen dute eta horren helburua da gizarteratzea eta zaugarritasuneko edo bazterkeriako, babesgabetasuneko, desgaitasuneko eta/edo mendekotasuneko egoerak bizi dituzten pertsonen, familien, kolektiboan eta komunitateen eskubideak modu eragingarrian erabili ahal izaten bultzatzea.

Gizarte zibiletik sortzen dira eta sektorre publikotik (lehen sektorrea) eta merkataritza-irabazizko sektorretik (bigarren sektorrea) bereizten dira. Erakunde horien oinarri soziala kaltetutako pertsonen eta taldeen, boluntarioz (baita gobernuko organoetan ere) zein adituz osatuta dago. Lurraldean finkatze handia dute, eta hortik, beren jarduera herritarren bizitza hobetzera bideratzen dute **esku-hartze sozialaren arloan** interes orokorreko jardueren bidez; hau da, zerbitzu sozialean, enplegurako sarbidean, eta pertsona guztiei eskubide zibilen, ekonomikoan, sozialen eta kulturalen gauzatze eraginkorra errazteko garatutako beste edozein jardueratan, betiere, berdintasunean eta bereizkeriarik gabe.

Kohesioa, gizarteratzea, parte-hartzea, demokrazia, berdintasuna, elkartasuna eta justizia aintzat hartuta, Euskadiko gizarte ez litzateke berdina izango Hirugarren Sektorre Sozialak egiten duen ekarpenik gabe. Gaur egun, sektorreak 36.000 laguni lana ematen die, 125.000 boluntario biltzen ditu eta Euskadiko BPGaren % 2,2ko baliokidea den bolumen ekonomikoa kudeatzen du (1.451 milioi euro ingurukoa).

SAREEN SAREA elkartea 2014an sortu zen eta Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialeko 15 erakunde-sare biltzen ditu. Horiek guztiek hainbat esparru jorratzen dute: desgaitasuna, gizarteratzea, familia, adinekoak, etorkinak, enplegurako zentro bereziak, lan-munduratzeko enpresak edo garapenerako laguntza.

INFORMAZIO GEHIAGORAKO ETA ELKARRIZKETETARAKO

Naia Díez 688 729 340

komunikazioa@sareensarea.eu